



## Ibartarron bizi-kalitatea hobetuz

• **Uzturpeko ikasleek herrian egindako energiaren hausnarketaren ondorioak eta proposamenak helarazi dizkiote Ibarra udalari.**

Mugikortasuna eta horretarako erabiltzen dugun energia izan da aurten Tolosaldeko Eskolako Agenda 21 programan landutako gaia.

Gure LH eta DBHko ikasleek zera aztertu dute ikasturtean zehar; motordun garraio bideek eta hauek mugiarazteko erabiltzen diren erregaiak gure egunerokotasunean duten presentzia. Honek gure herrien antolamenduan eta bizitzan duen eraginaz hausnarketa sakona egin dute aldi berean. Herria aztertu ondoren, gelako ekintzak lagun, ikasleek ondorio, konpromiso eta proposamen hauek helarazi zizkieten udal ordezkariari, maiatzaren 4an burutu zen udal foroan.

Antza, autoa gehiago erabiltzen dugu bizikleta eta garraio publikoa baino. Hori gutxi ez, eta 1,2koa besterik ez da auto bakoitzean sartzen den bidaiari kopurua. Autoa gehiegi erabiltzean kontsumoa igo ez ezik, istripu gehiago ere izaten dira. Tamalez, bizikleta asteburuan eta oporretan baino ez dugu erabiltzen.



Tras analizar el impacto en nuestro día a día del uso de transportes motorizados y el consumo de energía, los alumnos de Primaria y Secundaria han trasladado al ayuntamiento los resultados obtenidos en nuestras calles, así como una serie de propuestas dirigidas tanto al municipio como a sus habitantes. Propuestas más concretas para el

ayuntamiento han sido la del uso de un radar para controlar la velocidad de los vehículos, ampliar las aceras, completar la red de bidegorris, multar a aquellos conductores que infrinjan las normas de circulación y promover campañas de concienciación y mercadillos de segunda mano.

### Udalerako proposamenak baditugu:

- Radarrak jartzea kaleetan kotxeak kontrolatzeko.
- Jendeak arauak errespetatzeko isunak jarri
- Kaleko espaloiak zabaldu.
- Bide gorriak jarri eta kanpaina bat egin bizikletaren erabilera bultzatzeko.
- Energia berriztagarriak erabiltzea: eraikin berrietan eguzki plakak jartzea, kotxe elektrikoa sustatzea
- Kontzientziazio kanpainak eta bigarren eskuko azokak antolatu
- Bidegorri sarea zabaltzea

2 KIROLAK

2 BERRIAK

3 BERRIAK

3 IRITZIA

4 ELKARRIZKETA

## KIROLAK

### Tolosaldeko eskola kirolaren amaiera ekitaldia



Tolosaldeko Eskola Kiroleko egitarauan ikasturtean partehartzaileek, maiatzaren 30eko ekitaldian parte hartu zuten ikasturteari amaiera emateko. Tolosako Alondegitik 11:00etan atera, korrika Berazubiko Estadiora joan eta bertan Tolosaldeko ikastetxe guztiak batera nahastuta desfilatuta ondoren, futbol zelaian mosaikoa egin, portaera zuzenen dekalogo entzun eta Zunba dantza saioa egin zuten. Bertaratu zirenek bukatzeko oparia izan zuten.

## KIROLAK

### Neska alebinak bikain



UZTURPE IKASTOLA A-ko ikasleak bikain aritu dira ikasturte honetako kirol anitzeko taldean. Tolosaldeko lehenak izan dira eskubaloian eta areto futbolean, Aitor Maizaren eskutik. Bestetik, areto futbolean, Gipuzkoako fasera pasa ondoren finalerako sailkatu dira. Zorionak denoi!

## BERRIAK

### Basque Culinary Center gurean



Janaria erosi, prestatu eta bazkaldu. Eta platerak garbitu gero, jakina! Honela aritu dira LH 5 eta 6en mailakoak, lau egunez, Basque Culinary Center-eko sukaldariak lagun. Gastronomía munduan murgildurik, uzturpekoek elikagaiez eta, funtsean,

elikaduraz hausnarketa sakon eta polita egiteko parada izan dute. Mondragon Unibertsitateak eta Eroskik babestutako ekimen berritzailea ikastolako guraso nahiz langileentzat ireki da arratsaldean.

## BERRIAK

### Uzturpeguna, jendez eta pozez gainezka!

Hazten goaz, ez dago zalantzarik. Uzturpegunean 650 lagunek bazkaldu zuten gurean, dozenaka bikotek tokan parte hartu; amai-

gabea zen zezen mekanikorako ilara... Gero eta gehiago zarete hau dena posible egiten duzenok!



## BERRIAK

# Frantsesekiko elkartrukea egonkortu da



Bigarren urtez burutu dugu Langon herriko eskolarekin elkartrukea. Iragan martxoan, eta aste-betez, Uzturpeko 22 ikasle eta bi irakasle izan ginen Frantzian. Gure lagunek bisita bueltatu ziguten apirilean, esperientzia interesgarria eta aberatsa izan zelarik. Proiektuko arduradun eta

motore Maider Salaberriak proiektua egonkortzeko asmoa helarazi digu. “Lan handia da eta prestaketa itzela eskatzen du aurretik. Edonola, ikasleek oso ondo baloratzen dute, beraz, gogotik eutsiko diogu proiektuari”, diosku Salaberriak.

## BERRIAK

# Piperrak landatu ditugu

Bertako pipermina dugu nortasun ikur nagusietako bat. Aurtengoa ere Molpoido inguruko baratza batean elkartu ginen DBH3ko ikasleok, San Isidro egunean, hain juxtu. Piperrak “gilda” erara edo ogiaren mamiaren barruan dastatu ostean, ikasle bakoitzak hiru bat landare landatu zituen. Irailean bueltan izango gara Molpoidon, landutakoa jasotzeko.

## BERRIAK

# Egur parkea ere badugu

“Ongi pasatzea, oreka lantzen dugun bitartean”. Haur Hezkuntzako koordinatzaile Usue Sukiak honela azaldu digu egur-parkearen helburua. Ikasturte hasieran planteatu ondoren, udaberrian egokitu zuen arotzak, baratzaren alboan. Sukiak dio patio nahiz klase ordu ugari pasa dituztela bertan. Diber-tigarria bezain eraginkorra dela-koan gaude.

## IRITZIA

# Badoaz DBH4koak (bai, aurtengoa ere)!

Errepikakorra irudituko zaizue honako zutabe hau; ikasturte bakoitzeko hirugarren aleko, eta hirugarren orriko hitz sorta (240 dira, hain juxtu!). Normalean DBH4ko ikasleen artean idazten dute, iaz bakar batek egin bazuen ere. Aurtengoa, baina, inork ez du onartu “agur” esateko gonbita. Lotsa izan liteke, nagikeria, ala bien arteko nahasketa. Auskalo. Honela, beraiekin urte hauetan zehar egondako irakasleetako bat duzue hitz honen egilea. Ez pentsa, zaila egiten da oso talde bat joateak pizten duen sentimendu sorta adieraztea, areago irakasle on izenean idazten ari naizelarik. Gogoan dut gela honekin lan egin nuen lehenbiziko aldia. Ziur nago jakinminak jota gaudela irakasleok une haietan, gure lankideei entzundakoa baino ez baitakigu gurera iritsi den klase horretaz. Ikastolan urteak eman arren, hasierako aurkezpen “ofizial” hura ez da samurra izaten.

Klasekoen izenak ikasi eta, piskanaka-piskanaka, hasten gara elkar hobeto ezagutzen. Hasierako jende multzo horren barruan aurpegiak bereizten hasten gara; ahotsak, negarrak nahiz irribarreak, sentimenduak...

Ez nuke esango aurrean doazenak klase “berezia” izan direnik. Horretarako arau finko bat egon beharko luke; gela “estandar” bat. Eta ez dago. Mundu ezberdinez osaturiko ekosistema, ala unibertsoa, dugu gela bakoitza. Eta unibertso horietan murgiltzen gara irakasleok, ikasgela barruan nahiz kanpoan gaudela; eskola orduetan nahiz asteburuetan... Gelak, hain juxtu, sartzeko gonbita luzatu eta partaide egiten zaitu. Ikasturtea bukatzen denean jabetzen zara zerbait utzi duela zure barrenean, eta pentsatu nahi duzu zure zerbait ere badaramala jende multzo horrek. Eskerrik asko zoazenei, aurtengoa ere. Gelditzen garenok elkarrekin izandako esperientziak aberastu gaituelakoan gaude.

## ELKARRIZKETA

### Iñigo Yurrita

*Ikastolan hamar urte,  
sukaldean hamaika kontu*

*Datorren irailean hamar urte beteko dira Iñigo Yurrita (Irura, 1974) gurean sukaldari hasi zenetik. Gauzak asko aldatu ote diren galdetu diogu. Urte gozoak izan direla esan digu, pasarte gaziren bat ere gogora ekarri arren.*



#### Hamarkada batean zehar gauzak asko aldatu dira sukaldean?

Baitez esango nuke, kopuruetatik hasita. Sartu nintzenezan 50 bat gelditzen ziren jangelan; egun, ordea, 130 inguru. Elikagaiak direla eta, %85a ekologikoa da, eta den dena bertakoa. Sukaldea ere berritu zen, eta ezin ahaztu hondakinekin egiten dugu konposta.

#### Ase zaudela dirudi.

Aitorpen handiena zera da, umeek dena jatea eta gehiago eskatzea; gozoagoa dagoela ikastolako janaria etxekoa baino. Horretarako janaria mimoz prestatu behar da, umeek ahalik eta gehien goza dezaten.

#### Ikasleek ia betetako inkestetan "langile baloratuen" izan zinen.

Nire Michelin izarrak, bai horixe!

#### Baina une gaziak ere egongo ziren, ezta?

Denborak oso neurtuak dauzkagu hemen eta ni bakarrik nago sukaldean. Erritmoa hain da

handia "Hell's kitchen" ("infernuko sukaldea") ere deitzen diogula ikastolako gune honi. Jangelako langileok adrenalina jeta ibiltzen gara umeei k bazkaldu bitartean. Bestalde, zuek irakasleon "negar-toki" a ere bada sukaldea...

#### Bai, baina hik ia su eman hion sukaldeari behin.

Zartagin batek su hartu zuen eta ikastolako sute txirrinak jo zuen, simulakroa izan gabe. Susto bat besterik ez zen izan. Hori bai, ordu mordo sartu behar izan nuen sukaldea garbitzen.

#### Antza, ikasleak zurea jan ez ezik, prestatzen ere ikasiko dute datorren urtean, ezta?

Zuzendaritzatik DBH3 eta 4koei sukaldaritzat tailerra emateko prest ote nengoen galdetu zidaten eta baietz esan nuen. Izan ere, irakasle ere aritu naiz urte askoz, CEBANCen, ezinduei edota atzeritarrei eskolak ematen... oso gogokoa daukat.

#### Sukaldean ere txakurrak hanka-hutsik, "helburu didaktiko" en menpe...

Oinarrizko helburuak dira: sukaldean aritzea zer den ikastea, eta batez ere autonomoak izaten lortzea. Funtsean, 14-16 urtekoek "biziraupen" sukaldaritzaren menderatzea dut helburu.

#### Datozen 10 urteetako aldaketa gehiago aurreikusten dituzu?

Absurdoa eta tristeza litzateke kontrakoa pentsatzea, aldaketarik egongo ez dela, alegia. Atzean gelditu da umeak aiton-amonengana bazkaltzera bidaltzea, beraz, kopuruak handitzen joango direlakoan nago. Jangela egokitzea eta berrantolatzea ezinbestekoa izango da. Bestalde, gero eta kontzientzia handiagoa dago elikadurarekiko. Dela dieta orekatua, "mediterranea"... Aldatzeko zailena, baina, gure generoaren kalitatea izango da. Wyoming-ek dioen bezala, bihar gehiago eman ahal izango dugu baina ez hobeto, ezinezkoa baita.

## ✂ KEXA ETA IRADOKIZUNAK QUEJAS Y SUGERENCIAS:

Nire kexa edo iradokizuna:  
Mi queja o sugerencia:

Izen-abizenak:  
Nombre y apellidos:

Erantzutea nahi al duzu?  
¿Quieres que te respondamos?

BAI SI

EZ NO

Tel.: \_\_\_\_\_ ✂

### UZZTURPE IKASTOLA

  Egialde 2, 20400 Ibarra  
 943 67 12 99  
 943 67 56 32  
 [ibarra@ikastola.net](mailto:ibarra@ikastola.net)  
 [www.uzturpe.eus](http://www.uzturpe.eus)

 Euskadi  
2 0 0 4

 ikastolenekarte

 bai  
euskarari  
zerbitzua es lan  
euskaraz

Laguntzaileak:

 IBARRAKO  
UDALA

 kutxa

 kutxabank

 LABORAL  
KUTXA